



A las puertas de un nuevo modelo energético



Ira. 23 2020

Kod. W05-20

Mod.:

Online zuzenean

Edizioa

2020

Jarduera mota

Jarduera irekia

Data

Ira. 23 2020

Kokalekua

Online zuzenean (ZOOM)

Hizkuntzak

Gaztelera

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Trantsizio energetikoak balio izan behar du ziurtasuna eta egonkortasuna emateko eragile publiko eta pribatu guztiei eta ekintza klimatikoa mobilizatzeko.

Gaur egun ezagutzen dugun energia eredua zaharkituta dago jada. Agertoki berri batean sartzen ari gara, zeinean energia eskariaren zati handi bat energia berriztagarrien bidez ase ahal izango den, kontsumitzaileak energia hornitzailea hautatzea baino askoz garrantzitsuagoak diren erabakiak hartu ahal izango dituen, telekomunikazioek transmititutako eta kontsumitutako energiak berak baino protagonismo handiagoa izango duten, eta gaur egungo azpiegituren zati handi bat zalantzan jarriko den.

Eskaria energia berriztagarriekin aseko litzatekeen horizonte batekin lan egiten bada (2050. urtea), horrek ekarriko du kontsumoak pixkanaka elektrifikatzea, eta ibilgailu elektrikoa aldaketa horren trakzio elementu izaten hasi da jada. Agertoki berri horren osagai izango dira energia ekoizpen txikiak, oso banatuak eta, kasu askotan, biltegitratze elektrikoari lotuak, jabe anitzekin eta azpiegiturak eta energia trukatzeko eta partekatzekeo eredu berriekin. Kontsumitzaileak eragile nagusiaren papera hartuko du, eta, beraz, izan ahalko da energia ekoizle, kontsumitzaile, saltzaile, energia komunitateetako partaide... Horrela, gaur egun eskuraezinak zaizkion esparruetan jardun ahal izango du.

Aldaketa horrekin batera, paradigma berri bat sortuko da garraio ereduan, mugikortasun elektrikoan oinarritua, eta zerbitzu gisa emango da, erabili eta mantendu beharreko jabetza gisa eman beharrean. Horrek guztiak oinarri izango du datuen komunikazio on bat denbora errealean eta, horri esker, erabakiak berehala hartu ahal izango dira, eta energiaren jatorri zehatza, eskaintza eta prezioen aurreikuspena ezagutuko dira. Testuinguru horretan, telekomunikazioek eta informazio sistemek garrantzi handia hartuko dute energiaren sektorean.

Beraz, errealitate berri baten atarian gaude, eta zenbatezinak dira aurkeztuko zaizkigun eta galdu behar ez genituzkeen aukerak.

Hitzaldia online emango da zuzenean. Parte hartu nahi baduzu, mesedez, izena eman ZOOM bidez sartzeko. Streaming bidez jarraitu nahi baduzu (parte-hartzerik gabe), sartu www.donostiasustainabilityforum.eus webgunean (sarbidea egun berean argitaratuko da).

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2020-09-23

18:00 - 19:00

“A las puertas de un nuevo modelo energético“

Enrique Monasterio Beñaran EVE - Instituto Vasco de la Energía - Director de Desarrollo e Innovación

Irakasleak



Enrique Monasterio Beñaran

EVE - Ente Vasco de la Energía, Director

Industria ingeniaria da teknika energetikoen espezialitatean, Bilboko Ingeniaritza Eskolan (UPV/EHU), eta bertan egin zuen ere Ingeniaritza Termikoko doktoregoa. Gainera, Automobilgintza Proiektuen Lidergorako Masterra egin zuen AICn. Bere ibilbide profesionala energia sektoreari lotuta egon da beti. Gaur egun, EEEn Garapeneko eta Berrikuntzako zuzendaria da, eta 1992az geroztik hainbat postu bete ditu erakunde horretan. 2010etik 2016ra bitarte eta, ondoren, 2018ko lehen seihilekoan, IBIL ibilgailu elektrikoak kargatzeko zerbitzuen enpresaren (EEEk eta REPSOLEk %50eko partaidetza dute bertan) eta IBILEK car-sharing elektriko filialaren zuzendari nagusia izan zen. Zenbait urtez, Energiaren Euskal Erakundearen jarduteaz gain Termodinamikako irakaslea ere izan zen Bilboko Ingeniaritza Eskolan (UPV/EHU).

Matrikula prezioak

INSKRIPZIO

2020-09-23 ARTE

IZENA EMAN

0 EUR

Kokalekua

Online zuzenean (ZOOM)

Online zuzenean (ZOOM)